

REGARDS SUR LA DANSE BASQUE

# SOKKA

© guénolé le gal



**eke icb**  
EUSKAL KULTUR ERAKUNDEA  
INSTITUT CULTUREL BASQUE



Gipuzkoako  
Foru Aldundia



DONOSTIA / SAN SEBASTIÁN 2016  
ELKARRIZKETAK / CONVERSACIONES

ERAKUSKETA IBILTARIA  
PRENTSA TXOSTENA

EUSKAL DANTZAREN URRATSETAN

# SOKA



# AURKIBIDEA

1  
Sar-hitza  
*4. orria*

2  
Partaideak  
*5. orria*

3  
Eszenografia eta multimedia hautua  
*6. orria*

4  
Erakusketaren moduluak | Gaiak  
*10. orria*

5  
Erakusketaren bisita eta bitartekaritza  
Transmedia  
*29. orria*

6  
Publikoak dioena  
*31. orria*

7  
Donostia 2016 Europako kultur hiriburuaren  
gomendiozko gutuna  
*32. orria*

8  
Harremanak  
*34. orria*

San Martin ezpata dantza  
Maritzuli taldea 2015  
(argazkia: Gabrielle Duplantier)



# 1 | SAR-HITZA

Dantzak euskal nortasuna handizki adierazten du. Atzo eta egun, ez da arras arrazoi berdinentzat dantzatzen. Orain dantzari esker, jende ezberdinek sustraiak atzeman ditzakete eta mota askotako harremanak ukan.

Nonahi edo noiznahi emana izan dadin (norbera dantzari edo dantza talde batean, kanpoan edo barnean, molde tradizionalen edo gaurkotuan) dantza etengabe berritzen ari da. Euskal dantza denbora berean teknikoa eta herrikoa da, bat-batekoa eta kulturala. Arketipoetan sartzen ez den jendarte baten aniztasuna erakusten du.

Euskal kultur erakundeak ekoiztu duen erakusketa ibiltariaren xedea, kultura alor hori publiko zabalari hobeki ezagutaraztea da. Zabalkunde tresna hori multimediak eskaintzen dituen aukeretan oinarritzen da.

4

Horrela, tokiko abaina ere unibertsala den jarduera horren aurpegi sozial, historiko eta artistikoak erakutsiko ditu euskarri berri eta dokumentu arraroak agertuz. Azken finean, euskal dantzen ikasteko edota emateko gogoia piztu behar luke erakusketak.

Azpitarratzekoa da «SOKA» erakusketa proiektua euskal dantzaren mediazio eta transmisio proiektu orokor batean kokatzen dela, 2016-2017 urteetan transmedia dispositibo ezberdinen bitartez gauzatuko dena. Publikoari gaia sakontzeko beste aukera bat emanez, bisita aitzin eta bisita ondoren...

## BATZORDE ZIENTIFIKOA

**ROGER GOYHÉNÈCHE**

*Koreografoa eta Iparraldeko Dantzarien Biltzarreko lehendakaria*

**XABIER ITZAINA**

*Dantzaria eta musikaria, CNRS-eko ikerlaria*

**OIER ARAOLAZA**

*Dantzaria, formatzailea, antropologoa, [www.dantza.eus](http://www.dantza.eus) atariaren animatzailea*

## AHOLKULARI:

**THIERRY TRUFFAUT**

*Antropologoa, Euskal Dantzarien Biltzarreko ohorezko lehendakaria*



Baxenabarreko bolantak - Donibane Garazi  
(argazkia: Gabrielle Duplantier)

## LAU HIZKUNTZATAKO ERAKUSKETA

«SOKA» erakusketa lau hizkuntzatara izanen da (euskara, frantsesa, gaztelania, ingelesa), tokiko eta nazioarteko publikoarengana joateko. Bosgarren hizkuntza bat txertatzeko aukera izanen da antolatzaileen eskaeren arabera.

## 2 | PARTAIDEAK

### EKOIZLEA



### EKOIZLEKIDEA




### IBILTARITZAREN LAGUNTZAILEAK



5

### KOMUNIKABIDEETAKO ETA ARTXIBOETAKO PARTAIDEAK



### PARTAIDE TEKNIKOAK

«Transcreativa» prototipoen garapenaren kariatara



### LEHEN AURKEZPENAREN PARTAIDEA



# 3 | ESZENOGRAFIA ETA MULTIMEDIA HAUTUAK

Bisitaria lau eremu tematikoren inguruan egituratu espazio batean ibiltzen da. Eremu tematiko bakoitzean erakusketaren gaiarekin zerikusia duten multimedia osagaiak kontsultagarri dira. Bisitaria nahi bezala ibil daiteke, bisitak ez dauka eta zentzu jakinik. Modulo horiek osatzen dituzten panelek bisual eta testu indartsuak badituzte : paneletan, ukipen pantaila batzu txertatuak dira. Bestalde, erakusketaren berezko argizatzearen euskarriak dira.

Ukipen pantailek, modulu etako mezu orokorrak sakontzeko parada ematen duten informazio eta ilustrazio osagarriak eskaintzen dituzte. Zentzu horretan, ludikoak baino didaktikoak dira.

6

## LAU IRAKURKETA MAILA

### [ 1 ] Lehen maila, orokorra

Sarrera tituluak eta testuak, bisual finkoak (inprimakiak), eta animatuak (kuadro numerikoetako bideoak), anaglifoak (3D irudiak), soinu giroak ...

### [ 2 ] Bigarren maila, tematikoa

Bideo tematikoak (sorkuntzak, artxiboak), taldeka pantaila handian ikustekoak (telebistaz edo bideo-proiektore batekin).

### [ 3 ] Hirugarren maila, berezitua

Azpigaien inguruko testuak, bideo lekukotasunak eta artxibo dokumentuak (grabaketak eta irudiak), ukipen pantailetatik kontsultagarri.

### [ 4 ] Laugarren maila, transmediatikoa

Adibidez [www.soka.eus](http://www.soka.eus) webgunean kontsulta daitezkeen dokumentu gehigarriak (bideoak, biografiak, argazkiak e.a.) baita ere SOKA-ren inguruan antolatutako erakusketak, hitzaldiak, animazioak edo ikuskizunak.



Beasaingo (Gipuzkoa) ezpata-dantzari gaztea (Argazkia: Dantza.eus)

## IBILTARITZARAKO OPTIMIZATUA

SOKA erakusketa, gela konfigurazio ezberdinetara egokitzen ahalko da, baldin eta oinarriko baldintzak errespetatzen badira (130 metro karratuko gutieneko azalera - 2m55eko gutieneko altuera). Erakusketa gune handiagoentzat, osagai batzu gehitzen ahalko dira (argazki erakusketa, artxibo irudiak proiektatzeko gune bat, etab.)



# ERAKUSKETAREN BISTA OROKORRA

## Perspektiba axonometrikoak

Gutieneko azalera: 130 M<sup>2</sup>  
Moduluen goratasuna: 2m50



SARRERA  
1. MODULUA

» *Zergatik dantzatzen duzu?*

3. MODULUA

» *Dantza eta gizartea*

4. MODULUA

» *Sorkuntzaren bideak*

7

**SOKA**



2. MODULUA

» *Euskal dantza eta historia*

# ZENBAIT ARGAZKI...

Egilea: Johan Morin

8







# 4 | ERAKUSKETAREN MODULUAK GAIK

## 1. MODULUA

### SOKA

Eskuakelkarri eman ezplazaratu dira luzazeuskaldunak dantzara: soka.

Belaunaldiz belaunaldi, kultura bat, hitz egiteko hizkuntza propio bat, munduratzeko txoko bat, elkarrekin bizitzeko dantza bat transmititu dute Euskaldunek sokadantzan.

Euskara eta euskal dantza, horiek dira Euskaldunek komunikatzeko, sentitzeko eta bizitzeko dituzten berezko lengoaiak.

Hitzen bidez gorpuzten da euskara, gorpuztaren bidez hitz egiten du euskal dantzak.

10

Euskal dantza zer den, nork dantzatu duen, nolakoa den eta zergatik XXI. mendearen hastapenean Euskaldunek molde berezi horretan dantzaten jarraitzen duten galdetzen dio bere buruari erakusketa honek. Zergatik ez da eten dantzaren soka zaharra Euskaldunen herrian? Nola egiten da sokadantzan globalizazioaren eta komunikazioaren aroan?

Dantzatik euskal munduari begiratzen dio erakusketa honek. Euskal dantzaren etorkizunaz galdetzen dio ikusleari, eta horrekin gogoeta gai du iragana, plaza, eszenatokia, gizartea, boterea, agintea, borroka, iraultza, jerarkia, berdintasuna, kohesioa, etena, gatazka, transmisioa, generoa, adina, protokoloa, plazera, liturgia, festa, tradizioa, berrikuntza, erlijioa, sekularizazioa, iraupena, haustura, gozamina, bikaintasuna, arrunzeria, ohitura, kultura, euskara, dantza, soka.

Euskal dantzaren SOKA.



*Esku dantza, Goierri-Sakana, 2009*  
(argazkia: Xabier Eskisabel, GureGipuzkoa.net)

### BIZIPEN INTIMOAK ETA IRUDIKAPENAK

Zergatik dantzaten duzu ? Zer da euskal dantza ? Bi galdera orokor hauetan oinarrituz, sartze modulo honetan, Joana Asurmendi bideogileak euskal dantzarien bizipen intimoak eta irudikapenak aztertzen ditu. Beren unibertsoak eta ikuspegiak pantaila handian begiratzen ahalko den bideo sorkuntza batean edo nahieran kontsultagarriak diren lekukotasun moduan agertzen dira.

# Euskal dantza eta historia

Orok dakiten bezala, euskal urratsa dantza klasikoko urrats bat da, itxura ikusgarriak har ditzakeen euskal jauzia bezala. Ekarpen horiek ohargarriak dira zeren mundu osoan ez baita beste herririk dantza klasikoari halako ekarpenik egin dionik. Segurki, Euskaldunek -gizonek hasteko- dantzarako daukaten zaletasunak goi-mailako teknika eta berezitasuna erraztu ditu. Mendeetan zehar, antzina-antzinako urratsei urrats berriak gehitu zaizkie, eta aspaldiko taupadei, besteei mailegatu erritmoak. Euskal dantza etengabe aldatu da, baina ohituraren funtsa sekulan ez sakrifikatuz mementoko modernitatearen probetxurako.

## EUSKAL DANTZAREN ESTETIKA

### Maiz atletikoak diren jestuak

Euskal Herrian «*Haur batek badaki dantzan egiten aita eta inudea deitzen jakin aitzin*» azpimarratu zuen René le Pays-ek XVII. mendean. Dantzarako zaletasun handia, beraz, ttipitatik hartzen da. Aireko urrats konplexuz osatu jestu indartsu eta ausartak dira dantza erreperitorio horren ezaugarria. XVIII. mendean, ohitura horrek harriturik, Voltaire-k hitz hauek idatzi zituen: «*Orduan Baskoi talde harro eta alai bat etorri zen, dantzan arituz pandero baten erritmoan (...) Pirinioen zolan bizi edo, hobeki errateko, jauzika ari diren herri horiek, Baska edo Baskoi deiturik.*» (La Princesse de Babylone (1768).

### Dantza akademikoaren ekarpena: Zuberoaren kasua

Zuberoak, euskal herrialde ttipiak, inoiz izan duen biztanle kopuru handiena hamar mila baino pixka bat gehiago izan da. Alta, ahultasun demografikoak ez du paregabeko garapen koreografikoa trahatu, aldaketa handiak ezagutu zituen XIX. mendean bereziki. 1909an, Charles Bordes musikariak (Hezkuntza Publikoko Ministerioak galdeginik, Euskal Herriko musikazaharrak biltzeko ardura zuenak) Zuberoako dantzaren hasiera ezin hobeki ulertu zuen. Horretaz ohartu zen: «*bazirudien sustraiak XVII. eta XVIII. mendeetako antzerki dantzaren frantses ohituretan hartu zituela. Ohitura horiek, antzerkitik behialako erregimentuko dantza eskoletara mugitu ziren (...) ororen buru Euskal Herriko urruneko haran piriniotarretara iristeko.*» Alabaina, XVIII. mendearen amaieran eta XIX. mendearen hasieran, frantses armadak bere behar propioetarako prestatzen zituen dantza maisuak. Soldadutza egiten zuten bitartean, zuberotarrek dantza urrats anitz ikasi zituzten, Zuberoako ohitura zaharrarekin nahasi zituztenak.

### Branlearen arte zaharra

XIX. mendeko urrats zaluak ez dira Zuberoako dantzen ezaugarri bakarrak. Beste urrats batzuk, askoz ere zaharragoak eta beren gailurrean jakintsu gisa jotzen zirenak, han-hemenka agertzen dira, hauetarik zaharrenak Toinot Arbeu-ren «*Orchésographie*» dantza tratatuan (1589) aipatuak direlarik. Urrats horiek bigarren multzo koherente bat osatzen dute, Zuberoako eta beste euskal herrialdeetako ohituretan erabat sustraiturik. Aspaldi handiko dantza horiek, «*branle*» genero-izenpean ezaguturik, XVI. mendetik goiti erabiliak izan dira Frantzian. Ia denek ahanziak, branleek Euskal Herrian aurkitu dute loratzeko lurra, dantza berri gisa agertuz. Jean-Michel Guilcher-en arabera, «*biziki aitzinatuak dira, Frantziako beste hainbat dantza folklorikorekin konparaturik, bai eta XVI. mende amaieran eta XVII. mende hasieran frantses gizarte osoan gehien egiten ziren branleekin alderatzen baditugu ere*» (Jean-Michel Guicheren «*La Tradition de Danse en Béarn et Pays Basque Français*» - 1984).



## Geometria eta osagarriak

Aspaldidanik, gizon-emazteek egin dantza herrikoi libertigarrietz gain, Euskal Herriak arte koreografiko bat garatu izan du, duela gutxi arte gizonei soilik erreserbatu. Besta berezi batzuetan eman errepertorio erritual horrek dantzarien inguruan bateratzen du gizalde bat. Kari horretara aurkeztu koreografiekin askotan figura geometrikoak eta osagarrien maneiua (uztai, ezpata, makila...) uztartzen dituzte, ohiko dantza horiei distira berezi bat emanez. Artoski landu kolore distiratsuzko jantziek distira are gehiago azpimarratzen dute.

## Fandangoaren estilo berezia

Euskal fandangoa XIX. mendean sortu zen. Behatzaile arretatsuak ziren Victor Hugo-k, Pierre Loti-k eta Maurice Ravel-ek preziatzen zuten zuhurtasun handiz egiten zen bikote dantza hura. Alabaina, euskal fandangoa, nahiz hasieran penintsulakoak inspirazio iturburu izan, hauetatik bereizten da.

12


Jatorriz dantzaldietarako dantza zen euskal fandangoa, duela gutxi geroztik, lehiaketa dantza bihurtu da, baietaeszenatokitirakolandukoreografia anitzen funtsa ere. Itxura anitzeko eta herrikoa izanik, euskal fandangoa da, oraindik, aparteko errepertorio aberats baten genero-hitza.

## **BERPIZKUNDEKO DANTZA-MAISUETATIK IZTUETARA**

### Dantza-maisuen tradizioa

Dantza-maisuak, Maitres de danse edo Maestros de Danzar izenekin ezagutzen dira Berpizkundean eta Barrokoan gorteetako noble, jauntxo eta erret familiei dantzan irakasten zieten dantza irakasleak. Dantza-maisu horiek, dantzan irakasteko eredu sendo bat zerabilten, maisuetatik ikasleetara transmititua zena.

Europa mendebaldeko gorte gehienetan izan ziren era honetako dantza-maisuak, eta XV, XVI eta XVII. mendeetan hainbat liburu idatzi zituzten dantza-maisu horiek beren dantza irakasteko azalpen eta metodo moduan. Domenico da Piacenza, Fabritio Caroso eta Cesare Negri italiarrak, Thoinot Arbeau frantsesa eta Juan Esquivel Navarro espainiarra aipa daitezke besteak beste. Beren dantza irakasmoldeak idatziz utzi zituztenei esker, dantza-maisuen sistema koreografiko eta pedagogikoa ezagutzeko aukera izan dute gaurko ikertzaileek.



Manuel Txapartegi aurrekularia 1920 inguruan Eibarren (Argazkia: Ojanguren Indalecio - CC-BY-SA Gipuzkoako Artxibo Orokorra - Guregipuzkoa.net)

### **EDUKI ABERATS ETA EZBERDINAK**

Erakusketak 400 bat ilustrazio (artxibo bideoak, elkarrizketa zatiak, soinu zatiak eta artxibo irudiak) eskaintzen ditu, bai eta zazpi bideo sorkuntza original eta SOKArentzat eginak izan diren argazki andana bat ere.



Dantza-maisuen artean, eskola, garai eta korronteen araberako aldaerak zeuden, baina sistema nagusi baten aldaeratzat har daitezke gehienak. Sistema horretan hiru mailatan (urratsak, aldairak, dantzak) oinarritutako eredu pedagogikoa ohikoa izan zen. Horrez gain, dantzarako prestutasun eta gorputzaren kolokazioari dagozkion irizpideetan, eta baita hainbat urratsetan antzeman daitezke sistemaren eragina.

### Errenazimenduko dantzak eta dantza tradizionalak

Berpizkundeko dantza-maisuen errepertorioaren antzerako ezaugarriak aurki daitezke Europako zenbait dantza tradizionaletan. Halaxe antzeman dute ikertzaileek. Julia Sutton-ek idatzi zuenez: «*Italiako dantza-liburuetako eta gaur egungo Balkanetako eta Greziako dantza urratsen artean dagoen antzekotasuna sendoegia eta agerikoegia da aintzat ez hartua izateko; baina antzekotasun argienak euskal dantzarien teknika bituosoan dago*».

Ingalaterrako morris dantzak, Espainiako Eskola Boleroa edo Errumaniako Calusari dantzak euskal dantzekin konparatuta antzekotasunak ageri dira. Eta ezaugarri komun horietako gehienak Berpizkundeko dantza-maisuen dantza sisteman aurki daitezke.

Europako gorteetan dantza-maisuek jorratzen zuten errepertorio eta dantzaren didaktikaren aztarnak, XVIII. eta XIX. mendeko akademia militarretan, eta baita Juan Inazio Iztuetazaldibiarrek 1824an argitaratutako Gipuzkoako dantzei buruzko liburuan ere antzeman ditu Juan Antonio Urbeltzek.

### Iztueta, aitzindaria ala azkendaria?

Juan Inazio Iztuetak 1824an Gipuzkoako dantzei buruz argitaratutako liburua aitzindaritzat jotzen da maiz, herri dantzak idatziz jasotzeko lehen folkloristen lanak beranduagoakoak baitira. Baina Iztueta Berpizkundeko dantza-maisuen oinordekotzat hartzen badugu, esan liteke ia toki guztietan ordurako galdua zegoen ezagutza eta sistemaren jarraitzaile izan zitekeela, eta beraz, aro baten azkendaritzat jo genezake.

Ez dago frogatua Iztuetak jasotako dantza-sistema Berpizkundeko dantza-maisuen azken aztarnetako bat denik. Lan-hipotesia da eta ikerketa ugari egin beharko da horri berretsi edo baztertzeko. Hipotesi horren arabera, dantza-maisuen ereduak gorteetan indarra galtzen joan ahala (XVII-XVIII. mendeetan) eta modako beste errepertorio eta dantza-moldeak nagusitu ahala (kontra-dantzak bereziki, XVIII. mendetik aurrera) probintzietako hiri eta herrisketan bilatu zutendantza-maisuek bere ogibidearekin jarraitzeko aukera. Ondorioz, tokian-tokiko zenbait tradizio koreografikotan aurki daitezke dantza-maisuen sistemaren aztarnak. Eta horietako bat izan liteke Gipuzkoako dantzen eta Juan Inazio Iztuetaren kasua.

## ERREGE EGUZKIAREN GORTEAN ETA OPERAN

### Errege Eguzkiaren gortean

Exotismo ukitu baten bila, Gorteko Balletak Euskaldunen eta Bizkaitarren dantzak bereganatu zituen. Helburua, Euskaldunen modara dantzan egitea zen, Jean-Baptiste Lully-k eta Pierre Beauchamps-ek, Luis XIV.aren balletetako intendenteburuak, besteak beste, egin zuten bezala. 1660an entsegu bat egin zuten Pier Francesco Cavalli-ren Xerse operan, «*Tartas*» izengoitiz ezagutua zen Jean-Louis d'Oyhenart-ekin batera. Azken hau, «*bere herrikideek zeukaten zalutasun fama hain ederki justifikatu zuena*» (Philippe Tamizey de Larroque-ren artikulua, Revue de Gascogne, 11. zenbakia -1870), Agramont marexalak «*opari gisa*» eman zion Erregeari haren balletetarako. Dantzari paregabea zela, eszenatokia partekatu zuen bere garaiko artista eta politikaririk ospetsuenekin. 1664an, adibidez, Molière-ren «*Ezkontza bortxatua*» ballet-komedian, Espainiar batena egin zuen, egiptoar batena egiten zuen Luis XIV.aren ondoan.

## Operan

Etienne Jouy-k seinalatu du Jean-Georges Noverre dantzaren erreformatzaileak eta Jean Dauberval ospe handiko dantzari zein koreografoak, mutxiko deitu euskal urratsa aurkeztu dutela Operako eszenatokian (Musika Errege-Akademia – Paris). Informazio hau, 1854an argitaratu Solasaldi eta Irakurketaren Hiztegian ere agertzen da, Luis XV.aren garaiko esperimentu gisa. Pariseko Opera ez zen euskal dantza aurkeztu zuen bakarra; Bordelekoak ere gauza bera egin zuen, 1838an argitaratu Antzinako eta Gaurko Bibliografia Unibertsalaren arabera. 1835eko Pariseko Aldizkariak « *Euskalduna* » deitu gizon bat aipatzen du, ohorea beste bi artistekin partekatu duena: Louis Pécourt eta Pierre Beauchamps. Azken hauen izenen ospeak denbora zeharkatu du.

## DANTZA ETA GENEROA HISTORIAN

### Dantzatu du emakumeak?

14

Euskal dantzaren historia egiterakoan, gizonezkoen dantzaren historia egindamaiz. Tarteka, emakume dantzarien aipamenak agertu dira, baina bitxikeria moduan hartu izan dira. Gizonezkoen aipamenak ugariago dira, ez alperrik gizonak posizio hegemonikoa izan du gizartean hainbat mendez, eta dantza erritual eta protokoloen bidez, besteak beste nagusitasun hori erakutsi eta sendotu izan du. Gure dantzaren historia berrikusi ahala agerian jartzen hasi da emakumeek ere dantzatu izan dutela. Hainbat testigantza dira horren berri ematen digutenak, jakinik gainera, ekitaldi ofizialetan, idatzizko arrastoa uzten duten horietan, gizonezkoek parte hartzen zutela, eta maiz, emakumeek dantzatu arren horren aztarna idatzirik ez dela geratu.

Dantzatu du emakumeak, bai horixe. Debeku eta oztopo ugari jasan behar izan baditu ere, dantzatu du emakumeak. Aginte zibil eta erlijiosoak ahaleginak egin ditu emakume dantzaria plazatik ezkutatzeko. Elizgizon eta alkate, gotzain eta gobernadore, amorrus eta temati aritu dira plazan dantzari ziren emakumeen jarduna debekatu eta kanporatu nahirik. Dantzatu du emakumeak, baina makina bat debeku, oztopo, kanporatze, zigor eta eraso sufrituta.



Zamaltzainak, Atharratzeko maskarada, 2015  
(Argazkia : Gabrielle Duplantier)

### MULTIMEDIA DISPOSITIBOAK

SOKAren edukien aberastasun guzia jendeen esku uzteko, 14 ukipen-pantaila, formatu handiko 7 HD telebista, 6 kuadro numeriko, 15 ordenagailu, 9 irakurgailu eta bideo proiektzio eremu bat baliatuak izanen dira.

## Emakumea dantzatua izan da?

Aita Donostiak idatzi zuen emakumeak euskal dantzetan ez zuela dantzatzen, dantzatua izaten zela. *El hecho es que la mujer vasca no baila en el verdadero sentido que la palabra tiene entre nosotros. Asiste al baile y toma parte en él; pero como bien se ha dicho, es para «ser bailada», para que ante ella muestre el varón sus habilidades.* Soka-dantzaz ari zen zehazki Aita Donostia aipu horretan. Soka osatu duten gizonezkoek aureskua jasotzera emakumea plaza erdira gonbidatzen duten uneaz. Baina soka-dantzak, ez zituzten soilik gizonezkoek egiten. Lehen sokak, ez zituzten soilik gizonezkoek ateratzen. Ohikoa izan da emakumeek soka-dantzak gidatzea, lehen soka emakumez osatzea, eta beraz, dantzari protagonismoa beregain hartzea. Hona Resurreccion Maria de Azkuek jasotako kanta honetan kontatzen dena: «*Behin batez yoan ninduzun Isturitzeko plazalat, andre eder bat ikusi nuen dantza-buruan zuhala*». «*Andre eder bat dantza-buruan*», emakume bat soka-dantza gidatzen.

## XX. MENDEA

### Ipar Euskal Herrian gainbeheran diren ohiturak (XX. mende hasieran)

XX. mendeko lehen hamarkadak arte, Ipar Euskal Herriko dantzak bere jatorrizko funtzioak atxiki zituen, batzuetan dibertigarriak, bestetan erritualak: Zuberoako maskaradak eta pastoralak, Nafarroa Behereko kabalkadak, Lapurdiko Kaskaroten ihauteriak. Bigarren mundu gerraren bezperan, hiru probintzia horiek nekez mantendu zuten tokiko errepertorioa, XX. mende erdian erabat zaharkiturik gelditu zena. Modernitateak -edo, bederen, garaian modernitateaz zuten ideiak- usaiaiko ohitura gehienak garai zitzakeen eta 1940. hamarkada euskal dantzaren biziraupenarentzat zoritxarrekoa izan zitekeen.

15

### Euskal abertzaletasuna eta dantza hego Euskal Herrian

XIX. mendeko karlistaden hondamendiaren ondotik, hego Euskal Herriak aldaketa handiak ezagutu ditu, ekonomiaren, kulturaren eta politikaren arloetan. Sabino Arana Goiri-k bultzaturik, euskal hiri-mugimendu abertzale bat sortzen da goi-mailako industria siderurgiko batez aberatsa den Bilboko hirian. XX. mende hasieran, euskal dantza erabiltzen da euskaltasuna defendatzeko. Errepertorio abertzale bat agerian ezartzen da gehienetan Sabino Arana Goiri-k sortu berria duen ikurrinaren koloreak, hau da, gorria, berdea eta zuria elkartzen dituen. Gutxi-asko jatorrizkoak, gutxi-asko sinplifikatuak, gazteei irakatsi dantza horiek jendaldea sutan ematen dute.


### Euskal ballet eta abesbatza nazionala

Gernika, 1937ko apirilaren 26an. Egunsentian, herri merkatua muntatzen da. Gaua heldu aitzin, hegazkin naziek erail duten herria gibelean utziko dute. Euskaldunen herri sakratuaren suntsitzeak aurreratu ditu Bilboren erortzea, bai eta euskal errepublika gaztearen amaiera ere. « *Baliteke hemendik ateratzeko aukerarik ez izatea. Horrek ez du esan nahi borrokak eremu artistikoan ere irauten ahalko ez duenik... Zergatik ez eraman mundura, gure doinurik ederrenen bitartez, askatasunaren alde hiltzen ari den herri baten oroitzapena?* ». Hitz horiekin adierazi du, Jose Antonio Agirre-k, doi-doia 33 urte dituen Eusko Jaurlaritzako lehendakariak, laster gorpuztuko den bere pentsamendua. Ondoko asteetan, Eresoinka taldeak, horretarako prestatuak, ehun bat artista biltzen ditu bere baitan, horietarik hogeita hamar bat euskal dantzariak direlarik.

## Olaeta-ren eragina ipar Euskal Herrian

1927an Segundo Olaeta-k sorturik, Elai Alai izeneko haur bizkaitarren taldeak Frantzia hartzen du iheslekutzat. Frankismo eta honen bortxakerietarik ihes eginez, Segundo Olaeta Biarritzen egoten da bere familiarekin. Bertan Olaeta Balletak sortzen ditu. Historiaren tragedia baten emaitza zoriontsua den ekimen horri esker, lortzen dute ipar Euskal Herrian hasi zen euskal dantzaren gainbehera murriztea.

1945ean, Filipe Oihanburu artista enblematikoak bultzaturik, Olaeta Balletak Oldarra Balletak bilakatzen dira. Segundo Olaeta-k prestatuturik, Jean Nesprias zaletasun handiz engaiatzen da dantza ahalik eta jende gehienari irakastera, 1944tik goiti eta mende erdi bat baino gehiagoz. Zenbait urte geroago, Koldo Zabala-k, Oldarra taldeko egile nagusiak lekukoa hartuko du. Beste batzuek segida hartuko dute. Denbora gutxi barne, euskal dantza talde ugari sortuko dira ipar Euskal Herrian, hirietan bereziki.



Zumarraga, 1932, ezpata-dantza (Argazkia : CC BY-NC-ND-3.0-ES 2013 / KUTXATEKA / Pascual Marín)

## Jatortasuna kezka gai

Batzuetan, dantzariak eta irakasleak ohartu gabe ere, irakatsi dantzak jatorrizko bertsioetatik urrunduko dira. Bizkaiko eta Gipuzkoako dantza batzuen kasua izan da, baina Juan Antonio Urbeltz-ek dantza horiek jatortasun osoan erakutsi izan ditu hainbat ikuskizunetan, 1988ko Zortziko ikuskizunean, besteak beste. Azken honetan, ohiko dantzaren irudikapen berria sortu du, gidoi bat daukana eta, orduz geroztik jarraitzaileak izan dituena. Antzeko motibazio batek bultzatu ditu dantzari batzuek beren lurraldeko ohiturez birjabetzera. Hala lortu dute dantza tradizio batzuk salbatzea halabeharrekotzat iragarria zen hondoratzetik.

## EUSKADIKO FILMATEGIKO ALTZORRAK

SOKAren partaidea den Euskadiko Filmategiak Euskal kultur erakundeari ateak ireki dizkio, bere ikus-entzunezko artxiboen erabilera errazteko. Erabilpen eskubideak dituzten jendeen kolaborazioari esker, (familia artxiboak), euskal dantzaren inguruko bideo zati andana bat aurkeztuak dira erakusketan, horietan zaharrenak 1920 urteetakoak direlarik. Lekukotasun baliosak eta hunkigarriak.



## Dantza eta gizartea

Gorputzaren ariketa bezainbat, dantza gertakizun sozial bat da. Dantza testuinguru desberdinetan kokatzen da, izan daitezen besta, libertimendu edo ospakizun. Testuinguru horien eduki zein erranahia beti garai, toki eta kategoria sozialen arabera izan da. Dantza tradizionalak eta libertimendu edo ospakizunei lotu bere testuinguruek anitz derasate gizarte baten funtzio-namendu, soziologia, ekonomia edo ekonomia moralari buruz. Dantza tradizionalen bilakaerari ikuspegi desberdinen arabera behatzen ahal zaio: dantza eta ordenu soziala, dantza eta gizarte erregulazioa, dantzaren erranahi sinboliko gordeak, Eliza eta dantzaren arteko harreman bikoitza, edo dantza soinulariaren bilakaera historikoa. Jarrera eta praktika sozial horiek beti aldatuz joan dira mendeetan zehar, gaurko aniztasuneraino.

### ORDENU SOZIALA SENDOTU

#### Soka dantza eta protokolo zibilak Hegoaldean: dantza gizartearen ispilu

Libertimendu soila izaiteaz gain, dantzak beti izan du solemnizazio funtzio bat. Gipuzkoa, Bizkaia eta Nafarroan, soka dantza izan da gizartearen botere mailen ordezkatzeko erritual ko-reografiko nagusienetarik bat. Bere aldaeretan, soka dantzak beti egitura bera segitzen du: gizonen (edo emazteen, andereen soka dantzen kasuan) arteko sokaren osatzea, «aurreku» eta «atzesku»-aren arteko desafio dantzatuak, emazteen (edo gizonen) sartzea sokan, zubiak, berriz desafio batzuk, fandangoak eta kalejira. Karlos Sánchez Equiza-k erakutsi du soka dantza gizartearen kohesioaren adierazlea zela, parte hartzaileak hautatzen zirela zubien bidez, eta kategoria sozial zokoratu batzuk dantzatik baztertzen zirela. Kohesio soziala hierarkizatu zen, eta sokaren buru izatea ohoretzat zeukaten. Bizkaian, berriki izendatu auzapezak izan behar zuen sokaren buru kargutan sartzeko egunean. 1824an, Iztuetak soka dantza desberdinak bereizten zituen parte hartzaileen arabera: gizon dantza, gazte dantza, eche-andre dantza, escu-dantza galaiena, escu-dantza nescachena.

#### Soka dantza eta protokolo zibilak Hegoaldean: bilakaera eta aldaketak

Sánchez Equiza-k erakusten du soka dantzaren eredia finkatuz, Iztuetak neurri batean idealizatzen zuela testuinguru bat. Alta, dantzaren inguruan bazen eztabaida bero bat, eta dantzaren erabilerak ez ziren hainbertzetaraino finkatuak. Garai hartari loakioke mokanesak sartzea soka dantzetan, neska mutikoen bertutearen zaintzeko. Soka komunitatearen erregulazio eta bake tresna bilakatu zen. Oier Araolazak erakutsi du soka dantzak aldaketa historiko haundiak eza-gutu zituela. XIX. mende hondarrean, soka kasik desagertua zen hirian, eta herrietan doi-doi begiratzen zuten. Mugimendu euskaltzaleak berpiztu zuen soka, honen alderdi protokolaria barne. Gerla zibilaren biharamunean, mugimendu folklorikoak banakako dantza bihurtuko zen aurreku soka dantzatik bereizi zuen. Azken urte hauetan, soka dantza osoaren berreskurapen mugimendu bat izan da Gipuzkoan. Mugimendu hori bat dator tokian-tokiko nortasun kolektiboen azkartzearekin, bai hiri, bai herri, bai auzo mailan.

#### Dantza eta protokolo zibilak Iparraldean

Dantza tokiko gizartea eta bere hierarkien miraila da. Nafarroa Beherean, dantza luzean parte hartzea garai batez pagatzen zen, lekuaren arabera. Dantza jauzietan sartzeko ordena, Baztango mutil dantzetan bezala, denbora batez adin klase eta maila sozialaren arabera egiten zen. Dantza ordenu gizartearen metafora zen. Oztibarren, 1698an, ibarreko Gorte orokorraren biltzarraren egunean dantzaren irekitzeko eskubideak auzi bat sortu zuen Izurako juradoen eta Uharte-Hiriko baroiaren artean. Baionan, la Pamperruque zen, XIX. mende hasiera arte, pertsonalitate garrantzitsuen ohoretan ematen zen soka dantza. Hiriko elite burges eta aristokratikoak zuen osatzen Pamperruque-a. Frangotan, barnealdetik jin arazten zituzten baita ere «euskal dantzari» multxoak. Emeki-emeki haatik, dantza protokolaria hiritik desagertu zen. Barnealdean bizirik segitu zuen dantza korda, dantza luzea eta Zuberoako bralia edo branlearen bidez.

## Dantza eta erlijiozko erritualak

Eliza besta anitzek beren alderdi zeremoniala azkartu zuten dantza erritualaren muinean sartuz. Dantzaren presentzia hautesman daiteke bereziki Besta Berriko elizkizunetan, bai Ipar bai Hegoaldean. Oñatin zaindu dute dantza ziklo oso bat, Besta Berriko parte sakratu eta profanoetan hedatzen dena. Iparaldean, Lapurdi barnealdeko eta erdialdeko Nafarroa Behereko herri bakar batzuetan oraindik dantzan ari den eskolta armatu batek Besta Berrietako prozesioak laguntzen ditu. Ohorezko guarda hori Erregimen zahar-reko foru milizien eta XIX. mendeko baserrialdeko guarda nazionalen orotzapena da. Hegoaldean, dantzek herri, auzo edo ermitako sainduaren ohorez antolatu elizkizunak maiz laguntzen dituzte: bordon dantza Tolosan Jondonibanez, ezpata dantza Zumarragako Santa Maria ermitan, Muskildako santutegiko dantza zikloa Otxagabian, San Roke dantzak Deban, San Ferminetako ezpata dantza Lesakan, Aretxinagako dantzak eta Cortes-eko paloteadoak San Migeletan, Elurretako Ama Birjinaren arku dantza Lanestosan, eta abar luze bat.



Ezpata-dantza Iruñean - Aldapako San Fermin 2013 (Argazkia : Iñaki Zugasti - Dantza.eus)

18

## Dantzaren transmisioa maisutik ikaslera

Europar ikuspegi batetik, euskal dantza bere goi-mailako gradu teknikoarengatik bereizten da. Dantza ez da imitazio soilez ikasten ahal. Dantzari bilakatzen da maisu batekin ikasiz, dantza eskola batean. Formalismo tekniko hori ezagun da bereziki Zuberoako eta Gipuzkoako dantzetan, edo Bizkaiko soka dantzetan. Dantza luzaz izan da gazteriaren heziketa tresna, gogoaren eta gorputzaren disziplina bezala.

Transmisioa, kasu batzuetan, erakunde formal batzuen baitan egiten zen, jesuiten kolegioetan bezala, baina dantza eskolak oroz gaineratik herri mailan egituratzen ziren, dantza maisuen inguruan. Gipuzkoan, dantza maisuen leinu famatu bat J. I. Iztuetarekin (1767-1845) hasi zen, gaur egun arte. Zuberoan, 1870 eta 1914 artean, dantza eskolak egituratu ziren Atharratzen, Barkoxen edo Altzürükün armadatik sartu dantza maisuen inguruan. Azken hauek teknika arraberritu zuten dantza «sabanta» eta dantza jauzien aspaldiko hizkera elgarri lotuz.

## Gazteriaren autoeraketa molde bat

Dantzaren irakaskuntza eta plazaratzea elgarrekin kudeatzen dituzte gazteriak eta tokiko agintariak. Gazteria, erakunde bezala, luzaz osatu zuten mutil ezkongabeek. Haien gain zen dantza maisuaren eta soinulariaren (frangotan pertsona bera) deitzea. Ardura hori maiz bozen bidez hautatua zen talde batek hartzen zuen bere gain.

## JEAN-MICHEL GUILCHER-EN OBRA

SOKA erakusketan, 1960-1970 urteetan Jean-Michel Guilcher etnologo eta ikerlari britainarrak Xiberoan, Baxenabarren eta Nafarroan egin bideo zati ezberdinak ikusgai dira. Balio handiko dokumentu hauek, gaur egun oraino erreferentziatzat daukaten ikerlari honen euskal dantzari buruzko lana omentzeko parada eskaintzen dute.

XIX. mende hastapenean, Lapurdiko hainbat herritan, gazteek «tamburinareen elkarte» batzuk osatzen zituzten eta diru zerbait ematen zuten Bazkotik Abenduraino igandero joko zuen tamburin (xirula-ttunttuna) edo xiribikari baten ordaintzeko. Otxagabian, dantzariak Muskildako santutegiari eratzikiak dira. Eltziegion, Plazako Birjinaren zortzi dantzarietarik bakoitzak hiriko zortzi kofradietarik baten ikurra zeraman papoan. Busturialdean, «saragi mutilek» zuten bes-taren antolaketaren, arnoaren eta txistulariaren pagatzearen ardura. Eskoriatzan, gaur egun oraindik, 18 urte betetzen dituzten urtean, «kintoak» dantzan ari dira plazan Santa Ageda kari. Zarautzen, “mutilardoek” dute oilasko biltzea egiten etxez-etxe eta aurrekua dantzatzen.

## OHITURA DANTZATUAK ERREGULAZIO TRESNA BEZALA

### Segurtasun balbula bat? Ohitura dantzatuak eta satira soziala

Dantzek, batzuetan, satira soziala oinarritzat daukan antzerki genero bat laguntzen dute. Zuberoko maskaradak, buhami eta kauteren predikuekin, dimentsio satirikoa dauka.

Iparaldeko ihauteri eta toberetako antzerkiak (tzintzarrotsak, asto lasterrak, libertimenduak, Zan pantzarrak, tobera mustrak, galarrotsak...) alegiazko auziak antzeten dituzte. Erriberako Kortez-en, paloteadoak laguntzen duen «dance»-ak badauka parte antzetzutako bat (*Pastorada*), Mayoral, Rabadán, aingeru eta debruaren arteko elkarrizketa errimatu gisa iragaiten dena. Erdi Aroko mixterioen gisa, *Pastoradak* ongia eta gaizkiaren arteko borroka du irudikatzen, arte-tik bertso satiriko eta garaikide batzuk (dichos) sartuz. Usaia horien irakurketak anitzak dira. Batzuentzat, aldi baterako segurtasun balbulak dira, behin erituala bururatu eta ororen buru ordenu soziala indartzen dutenak. Beste batzuentzat, aldiz, «ahots gabeek» daramaten gizarte ordenatuaren aurkako funtsezko kritika plazaratzeko moldeak dira. Usaia horiek, hasteko, jakin izan dute arraberritzen eta gaurko egoerari egokitzen.

### Etxeen arteko harremanen erregulatze tresna sinbolikoa

Itxura guzien arabera, soka dantza, ingurutxo, dantza luze edo branleen funtzio sinboliko bat zen jendeen (eta etxeen) arteko loturen plazaratzea.

Berrizen, andere ezkonduak gomitatutako ziren erregeletan parte hartzera San Pedro egunean, eta neska ezkongaiak Santa Ana egunean. Ordizian, urtean ezkondu diren bikoteek soka dantza eskaintzen dute Santa Ana kari. Emazteek betidanik ukan dute eginkizun aktibo bat dantzan: edo dantza kordan nor sartuko zen erabakiz, Nafarroa Beherean bezala XIX. mendean, edo soka dantza berek gidatuz, Durangoaldeko zenbait herritan edo Lekeitio bezala. Eltziegion, neska talde batek zuen, gerla zibila biharamunean, herriko dantza ziklo berezia zaindu. Neskek protokolozko dantzetan parte hartzea indartuz joan zen XX. mendearen bigarren partean: pastoraletan, maskaradetan, kabalkadetan, ihauterietan, eta, berrikiago, Gipuzkoako ezpata dantzetan.

### Dantza espazioen arteko harremanen erregulazio tresna

Dantzak luzaz sinbolikoki kudeatu dituen espazioen arteko harremanak: etxea, auzoa, herria, ibarra, probintzia. Dantzatzeko eskubidearen aitortzeak ohore egiten dio gomitatutako den herriari. Ber-denboran protokoloak mugak non diren oroitarazten du. Iztuetak kondatzen du Gipuzkoako Goierriko auzapezek nola elgar gomitatzen zuten aldizka soka dantzaren eramateko. Iñaki Irigoienek azpimarratu du Bizkaian «erregela» dantzek irudikatzen zutela probintziako egitura instituzionala, elizate eta hiriaren arteko bereizketa bezala. Baztanen, mutil dantzetan parte hartzea luzaz ikusia izan da auzoen komunitatearen parte hartzearen sinbolo kasik juridiko bezala. Jauziak herrien artean antxeretan ezartzen dira oraindik Zuberoko pastoralaren hondarrean. Usaia hori garai batez hedatua zen Biarnoan eta Nafarroa Beherean ere, bereziki feria egunetan. Zuberoko maskaradan, barrikadek eta braliak ontsa irudikatzen dute gomitatzen duen eta gomitatutako den herrien arteko harreman bikoitza, ohore eta desafioz josia.

## Dantzaren testuinguru berriak

Erregulazio mekanismo horiek bilakaera desberdinak ezagutu dituzte, gizartearen aldaketen arabera. XIX. mende hon-darretik aitzina, euskal kulturaren politizazioa dela eta, euskaltzaleek zenbait dantza hautatu zituzten ikusgarri batzuen menturan. Durangaldeko dantzari dantza prozesu horren bihotzean izan zen. Berrikiago, ahusagailuzko dantzak ere berreskuratu nahi izan dira.

Berreskuratzea baino gehiago, testuinguru berri batzuk asmatuak izan dira, bereiziki hirian. Iparraldean, kostaldean desagertzeaz zeuden dantza jauziak berriz abiarazi zituzten, Betti Betelu dantza maisuak bultzaturik. Lapurtarrak elkarteak Lapurdiko ihauteria arrabultzatu zuen halaber.

Dantza jauziak gero eta gehiago eman dira azken urte hauetan, erranahiaren aldaketa haundi batzuekin. Anitzentzat, dantza euskal kulturaren lehen urrats baten emaitzeko aukera bilakatu da.

20

## ERRITUALEN ERRANAHI GORDEAK

### «Basa» eta «hezia»

Ohitura dantzatuen erranahia interpretazioaren lau haizetara irekia da. Ihauteri eta kabalkada anitzek - Thierry Truffaut-k Lapurdin aztertu zituenak edo Antton Lukuk Nafarroa Beherean -, pertsonai desberdinen arteko barne tentsio bat irudikatzen dute: bolantak eta zirtzilak, kaxkarotak eta maskak, jaun andere esposak eta hartza, gorrieria eta beltzeria, eta abar. Bertze eritual batzuek, Antzuolako Moroaren alardea edo Zuberoako pastorala bezala, mauro edo turko eta girixtinoen arteko oposizio klasikoa dute antzeztan. Kasu batzuetan, dantzari "ederren" buru bada pertsonai bikoitz bat, aitzindariarena bezainbat eroarena egiten duena (Bobo-a Otxagabian, Kaxximorra Araban). Batzuek, antropologia klasikoa segituz, oposizio horietan ikusten dute negua eta primaderaren arteko liskarra. Bertze batzuek klase irakurketa bat egiten dute, kategoria sozialen arteko harremanen antzezpina ikusiz. Bertze irakurketa batek oposizio bikoitz horiek galdezkatzen ditu, azpimarratuz bitarteko pertsonai anitz badi-rela maskarada desberdin horietan. Irakurketen aniztasunak, gisa batez, ohiturak iraunarazten ditu, bakoitzak nahi eta behar duena ikusten duelakotz.



Xirularia, 1949ko maskarada, Maule  
(Baionako Euskal Museoko bilduma)

### ARTXIBO ARRAROAK

František Pospíšil txekiar etnologoak 1927an egin filmen antzera (besteak beste, Xuberotarrak eta Baxe-Nafartar dantzari batzuen desfile batekin Baionako karriketan), SOKA erakusketan aurkeztuak diren beste dokumentu batzu arrunt bakanetan aurkeztuak izan dira publikoari. Erakusketaren edukien prestaketak guti ezagutuak edo arrunt guti baliatuak izan diren fondo batzuen baloratzeko parada eskaini du.



## Hil eta piztu

Erritual asko, bereziki ihauterietakoak, bururatzen dira pertsonai baten hiltze eta arrapiztea-rekin: kauteren aprendiza den Pitxu Zuberoako maskaradan, uxerra tobera mustretan, edo Zan Pantzar Haustez. Irakurketa anitz hemen ere. Violet Alford-en ondotik irakurketa naturalista segitzen dutenentzat, hor hautemaiten dira aspaldiko errito agrarioak, gizakien eta izadiaren emankortasun urteko zikloa segurtatu nahi zutenak. Bertze batzuentzat, pertsonaiaren hiltzeak erran nahi du ihauteriko infrentzuzko garaia bururatua dela. Ihauteriaz aparte, Juan Antonio Urbeltz-ek hainbat bestatan, bereziki Jondonibane eta Besta Berrietan, ikusten ditu izurriteen aurkako geriza erritu batzuk. Gaurko hainbat eragilerentzat, jestuaren, soinuaren eta errolaren transmisio modu zein testuinguruak diote «*ohiturazko*» izaera ematen bestari, jatorrizko erranahia, ezin ulertuzko bihurturik, edozein izanik ere.

## Dantza gogo ariketa bezala

Dantza batzuk oinarri koreografiko eta musikal irregularretan oinarrituak dira, J. A. Urbeltz-ek «*laberintikoak*» deitu egiturak sortuz. Bereztasun hori aurki daiteke Euskal Herri eta Bearnoko dantza jauzietan, Baztango mutil dantzetan, Gipuzkoako soñu zaharretan eta Durangaldeko erregeletan. Genero desberdin horien arteko ahaidetasunak ezagunak dira. Lapurtarrak jauziaren arrastoak aurki daitezke, adibidez, Gipuzkoako Kuarentako erregela soinu zaharrear. Eraikuntza melodiko horiek, J.-M. Guilcher eta M. A. Sagasetak erakutsi duten bezala, galdera anitz altxatzen dituzte. XVII-XVIII. mendeetan modan ziren doinu batzuetarik abiatzen dira, eta ekai hori garatzen dute modu asimetriko batean, baina dantza osoari batasun zerbait emanaz. Baliteke dantza horiek eginak izan daitezen memoria desafio gisa, dantza osorik emaiteko gai zen gazteriaren ohoretan. Dantza horien izenek, bertzalde, bertze ikerketa mundu bat zabaltzen dute.

## ELIZA ETA DANTZA

### Eztabaida Hegoaldean XVIII-XIX. mendeetan

Dantzaren indarrak, eliza bestetan ere, Kontra-Erreformako Eliza arranguratzaren zuten. Joxemiel Bidador-ek aztertu zituen XVIII. mendean dantzaren inguruan izan ziren lehia teologiko zorrotzak. Manuel de Larramendi (1690-1766) eta Sebastian Mendiburu (1708-1782) misionista, biak jesuitak, bata bertzearen aurka jarri ziren. Mendiburu-k, geroago Fray Bartolome de Santa Teresa (1768-1838) karmeldarrak eginen zuten bezala, dantza irmoki kondenatzen zuten. Larramendik aldiz dantza «*onak*» eta «*gaiztoak*» bereizten zituen, onetan sartuz protolozko ezpata dantzak eta soka dantzak. J. I. Iztueta-k (1767-1845), ilustrazioak eraginduta, eztabaida hori luzatu zuen. Gipuzkoako dantzetaz egin zuten obra nagusiaren xedeetarik bat zen dantza ziklo batzuen zilegitasuna eta aspektu morala azpimarratzea. Dantza hiritartasunaren eta gipuzkoar foralitatearen sinbolo bihurtzen zen.

### Eztabaida Iparraldean

Eztabaidak ukan zuten oihartzun zerbait Iparraldean. Dantza eta soinularien kondenak elizgizonen partetik ezin kondatuak ziren, Axular barne, XVII. mendetik aintzina. XVIII. mendean, Daguerre apezpikua bihurtuko zen Larresoroko seminarioaren sortzailearen eraginez, hainbat soinularik beren tresnak erre zituzten. Daguerre berak haatik gizon gazteen dantza baimentzen zuten herriko besta eta ihauteri kari. Dantza jauziak, dantza luzea, eta «*mauresque*»-hain segur gaurko kaxkarot martxaren arbasoa— onartzen zituen, ez zirelako «*lizunak*». Apezek dantza eta soinuarekin ukan zuten harreman konplexu horrek berant arte iraun zuen. Atharratzen 1832an, Etchart-Tiraz bikarioak Garat soinulariaren ehorzketetan prediku bortitz bat eman zuen: «*deitora ezazue infernuan jada erretzen ari den arima hunen bilakaera; madarika ezazue betikotz soinularien ofizioa*». Jendea oldartu zitzaion apezari prediku horren gatik.

## Apezak eta dantza: harreman bikoitz bat

Hegoaldean bezala, Iparraldeko apez batzuek dantza kondentzen zuten orohar, bertze batzuek aldiz bereizketa zehatzagoak egiten zituztelarik.

1679an Donibane Lohitzunetik barna pasatzen zela eta, John Locke filosofoa ohartu zen Pariseko Parlamentuak hainbat elizbarrutitan ezeztatu zuen usaia oraindik bizi-rik zegoela Lapurdin: apezak dantza irekitzea bere lehen meza eman eta.

Apez berriaren aitzineko apeza dantzaren gomiatu nagusia bilakatzen zen, eta «*dantzaldiaren errege*».

Bidador-ek erakutsi du usaia hori Hegoaldean ere indarrean zegoela. XIX. mende hondarrean oraindik, Lhande-en arabera, apezek oraindik dantzaldia irekitzen zuten Zuberoan, Muneñen edo Mutxikoen lehen puntuak emanaz.



Dantzari gazteak, Itsasu, 2015  
(Argazkia : Johan Morin)

Haien ondotik sartzen ziren dantzan etxeko nagusi zaharrak, nagusi gazteak eta, azkenik, seme gazteenak. Lehengo Eskualdunak zer ziren (1889) liburuan, Michel Elissamboure-k jarrera bikoitz hura silogismo adierazgarri batez laburtu zuen: (a) dantza guziak kondengarriak dira; (b) euskaldun jauziak ez dira dantzak; (c) euskaldun jauziak zilegi dira. Etnizitateak zuen moralitatea segurtatzen.

## XX. mendeko aldaketa: apezak eta folklorismoa

Apezgoak dantzari buruz zeukan jarrera emeki-emeki aldatuz joan zen, bai Hego, bai Iparraldean XX. mendean zehar, bi fenomenoren bateratzearen ondorioz. Alde batetik, euskaltzaletasunaren politizazio berriak, honen aldaera guzietan harturik (erromantikoa, karlista, abertzalea, liberala, errepublikarra,...), eragile kulturalak, apezak barne, eraman zituen tradizioan zenbait elementu hautatzera eszenatoki eta talde folklorikoentzako eredu berri baten eratzeko. Bertzalde, Elizak parropietako dantza taldeen garapena sartu zuen bere gizar-tearen egituratze estrategia orokorrean, oroz gaitetik 1920tik aitzina, bai Hego, bai Iparraldean. Ezpeletako klarineta joile bat, 1905ean eskumikatua dantzaldietan jotzeagatik, 1932an bikarioak berriz deitu zuen gazteriari dantza erakutsi zezan. Folklorizazioak bide desberdinak hartu zituen, batzuetan dantzaren oinarritzko erroetarik urrunduz, bertzetan hurbilago egonez.

### ARGAZKILARIEN BEHAKOAK

SOKAren kariatara, Euskal Kultur Erakundeak Gabrielle Duplantier eta Johan Morin argazkilariei eskuak libro utzi dizkie. Gabrielle Duplantier-ek dantzaren alde erritual eta soziala landu baldin badu ere, Johan Morin Euskal Herriko dantza eskoletan egiten den transmisioari interesatu zaio.

## ZOKORATUA BAINAN BEHARREZKOA: SOINULARIA

### Itxura xume bat

Dantza jite xumeko soinulariek luzaz lagundu dute. Hegoaldean berdin Iparraldean, Erregimen Zaharrean eta, batzuetan, XX. menderaino, "tamburinak" soinulari profesional, erdi-profesional, edo ofizialeak (zurgin, ehule, arotz, eiherazain, zapatagin,...) ziren. Laborari eta lur jabe guti. Soinulari anitz agota auzoetatik heldu ziren: Arizkuneko Bozate, Baigorriko Mixelena, Anhaizeko Xuhittoa. Batzuk buhameak ziren. Haien arbasoer dantza publikoan parte hartzea luzaz debekatua izanik ere, soinulari horiek leku berezi bat bazuten. Dantza eta soinuaren jakitatearen jabeak ziren, dantzaren kalitatea segurtatzen zuten, baina gazterien buruzagien menpe geldituz («danbolinausiak» edo «soinu mutilak»). Dantza maisu-soinulariaren figurak XX. mendea arte iraun zuen, bertzeak bertze Alejandro Aldekoa bezala Berrizen, edo Maurizio Elizalde bezala Baztanen.

### Ezagupen maila desberdinak

Soinulariaren estatutu soziala aldatu zen toki eta garaien arabera. Baionak bazuen XVII-XVIII mendeetan soinulari korporazio bat, eta tamburin joleak, beren usaiazko betebeharrak gain, tresna "sabantekin" nahasten ziren noiz behinka. Baina "tamborilero" edo "txuntxunero"-aren figura, gero "txistulari" bihurtu zena, oroz gainetik Hegoaldean erakundetua izan zen, udal mailan bereziki. Mikel Aramburu eta Karlos Sánchez Equiza-k erakutsi dute hasiera batean foralismoak eta Ilustrazioaren eraginak eta, ondotik, erromantizismoak zutela txistulariaren erakundetzea bultzatu. Hirietako txistulariek, beren ohidurazko ofizioez gain, tresna egokitu (eta eztitu) zuten saloi eta kontzertu erreperitorio berrietarako. Nafarroan, gaitak gisa bereko modernizazio prozesua ezagutu zuen XIX. mendean, batez ere Julián Romano (1831-1899) eta Lizarrako gaita eskolari esker. Iparraldean, herri soinulariak erakundetze eta modernizatzeko mugimendu horretatik aparte gelditu ziren, beren funtsezko ofizioa mantenduz dantzari dago-kionez.

### Euskal mugimenduak eta soinulariak

XIX. eta XX. mendeak herri kulturaren politizazio garaiak izan ziren Hegoaldean berdin Iparraldean, ideologia desberdin batzuek bultzaturik. Soinulariaren itxuraren irakurketak ere anitzak ziren garai hartan. Euskaltasunaren ikurra bihurtu zen txistua, eta abertzalegoaren gorakadarekin garrantzi berezia hartu zuen Hegoaldean XX. mende hastapenean. Euskal herriko txistularien elkarteak, 1927an sortuak, ezagupen hori indartu zuen. Iparraldean, xirula eta ttunttunak ez zuten gisa bereko interesik sortu, eta apalduz joan ziren. Lore jokoek xirula eta dantza jauzi lehiaketak eskaintzen zituzten 1920 arte, baina ez zen aski. Kobre eta esku soinuaren parean, sokekilako ttunttuna emeki emeki desagertu zen Lapurdin eta Nafarroa Beherean –salbu Amikuzen– 1914 aitzin. Xirula bigarren mailako tresna bihurtu zen, salbu Zuberoan, non jite azkarreko soinulari bati esker, Atharratzeko Lexardoat, 1866-1938), xirulak ihardoki baitzuen. Arrabita edo xirribika, behar bada euskaltzaleentzat aski "euskalduna" ez baitzen, emeki emeki isildu zen. Esku soinuak zuen gaina hartu, eta erreperitorioaren parte bat arraberritu ere. Hegoaldean, XIX. mende hondarrean heldu zen trikititxa diatonikoa nagusi bihurtu zen dantza solterako

### Aldaketak eta abiatze berriak

1936ko gerla zibilak aldaketa lasterrago zuen. Hegoaldean, galtzaileei lotuta izanki, txistuak behar izan zuen erregimen nazional-katolikoaren lehentasun berriekin moldatu. Besta Berriko prozesioak atxikiak ziren, baina agintariak subersibotzat zauzkaten ihauteriak debekatu zituzten. Iparraldean, egoera lurraldeka desberdina zen. Zuberoan, eredu zaharrak bizirik iraun zuen, nahiz eta Euskal Museoak, ttunttuna desagertzear zegoela ikusiz, 1931n ttunttuneroen lehiaketak antolatu zituen. Nafarroa Beherean, Faustin Bentaberry (1869-1936) soinulari eta dantza maisuak aldizka jotzen zituen klarineta, dantzaldi garaikideetarako eta arrabita, jauzietarako. Kostaldean, Pili Taffernaberry arrabita jolea bezalako azken dantza maisuek ospea galdu zuten, eta lekua utzi zieten Hegoaldeko iheslarien eraginez sortu talde folklorikoei. Ondoko hamarkadetan, dantza talde horien erreperitorioa zazpi probintzien eredian oinarritu zen. 1980. urteetatik aitzina, anitzek tokian-tokiko ohiturak berreskuratu nahi izan zituzten. Bilakaera horien ondorioz, gaur egungo paisaia koreografiko zein musikala aberatsa eta anitza da.

## GENEROA ETA ADINA DANTZAN

### Dantza eta generoa gaur

Gizartean oro har, politikan, lan-munduan, emakume eta gizonen eskubide eta aukerak berdintasunean izateko urratsak ematen ari dira azken hamarkadetan.

Zenbait alorretan, dantza tradizionalen adibidez, beste eremu batzuetan baino motelago bermatzen ari dira emakumeen eskubideak. Tradizioaren aitzakian, dantzak zentralitatea hartzen duen eremuetan ohikoa da oraindik gizonen nagusi izatea eta emakumea baztertua.

Genero bakoitzak duen aktibitate maila eta protagonismoa konparatuz gero azaleratzen den kontraesana argia da. Parte hartzaile kopuruei erreparatuz gero, eta bereziki jarduera ludikoetan eta transmisiorari lotutakoei begiratuta, nabarmena da nagusi direla emakumeak.

24

Baina dantzaren alorrean gutxiengoa izan arren, ikuskizun, erritual eta adierazpen sinbolikoetan gizonen beren posizio hegemonikoari eusten diote, eta asko dira emakumerik onartzen ez duten tradizio koreografikoak.

Baina zerbait aldatzen ari da XXI. mendearen lehen zati honetan. Luzaroan gizonen monopolizatu dituzten zenbait tradizioetan emakumeak hasi dira parte hartzen gizonen berdintasunarekin batera. Dantza gehienak generorik gabeko dantzak direla agerian jarri dute gizon-emakume horiek, eta erritualak osoago, ederrago eta justuago direla parekidetasunean egiten direnean.



Sara, 1951ko abuztua (Argazkia : Robert CAPA International Center of Photography)

### ROBERT CAPA ETA EUSKAL DANTZA

Argazki-kazetaritzaren sortzaileetarik bat izan den Robert Capa-k (Endre Friedmann, 1913-1954) 1951ko abuztuan Sara egin argazkien bost erreproduzio ikusten ahal dira erakusketan.

Balio handiko dokumentu eder hauek International Center of Photography de New-York zentroarenak dira.

## Dantzarako zaharregia naiz?

Dantzak ba al du adinik? Noiz hartu erretreta dantzatik? Adinean aurrera doazen hainbat dantzari ikusi eta entzunda esan liteke ezetz. Izan ere, adinean aurrera egin ahala orduan eta onuragarria gertatzen zaigu dantza egitea.

Adinarekin gorputzak malgutasuna eta indarra galtzen ditu, baina beste dohain batzutan, gure gorputzaren eta dantzaren beraren ezagutzan adibidez, aurretik amestu gabeko mailara iristen gara. Inoiz ez gara zaharregiak dantzarako, dantza ume, gazte, heldu eta zaharrena baita, nor bere gorputzaren neurrian.

Are gehiago. Dantza zahartzaro osasuntsua izaten laguntzeko tresna aparta da. Gorputza eta burua sasoiari izaten laguntzen du dantzak, adin bakoitzera egokitutako dantza ariketa fisiko eta mental paregabea gertatzen da.

Asko dira dantzak gudan eragiten dituen onurak: gure gorputza osatzen duten gihar eta artikulazioen erresistentzia, indarra eta malgutasuna lantzen ditu. Gure gorputz atalen kontzientzia eta kontrola eskaintzen digu. Gure adimena hobetzen du, besteak beste, espazioaren pertzeptzioa, koordinazioa, psikomotrizitatea eta erritmoa sendotuz.

Eta hori guztia... dantzak eskaintzen digun plazer harrigarriaz gozatuz. Dantzatzuz!

Iurreta, Bizkaia Urrijena 2014  
(Argazkia : Josu Garate - Dantza.eus)





## Sorkuntzaren bideak

Bestalde, SOKA-k hainbat euskal koreografo eta dantzariren gana eramaten gaitu ere. Hauek, euskal dantzaz duten ikuspegia ematen digute. Halaber, ondarearen eta sorkuntzaren arteko harremanaz mintzo zaizkigu. SOKA-ko beste moduluetan euskal dantzaren historiari, orainari eta geroari buruzko gogoetak badira. Hemen, bideogileek eta argazkilariek ikuspegi poetiko bat ekartzen digute, Euskal kultur erakundeak utzi dien askatasunari esker.

### FILMAK

#### Enbor beretik

Egilea: Oskar Alegria

Jean Ospital Biarritzen sortu zen, nahiz familia Makearra izan. Betidanik dantzarri izan da.

26

Parisen zegoelarik, jazz, dantza klasiko, Tirol edo Kurdistaneko dantza taldetan ari zen lanean. Luis Marianoren ikuskizunetako koreografiatan ere parte hartu zuen. Geroago, Ivan Ospitalev izenpean, mundu osoan ibili zen "Les Cosaques de la Mer Noire" errusiar eta ukrainiar dantza konpainiarekin. Gorako jauzia egin eta airean hiru itzuli egiteko gai zen. Gaur egun Biarritzen bizi da eta hiri horretan daukan tailerrean, luzaz segitu izan du bere trebetasun eta zalutasuna erabiltzen dantza irakasle gisa. 82 urte dituela, ongi merezi duen erretretaz gozaten da. Denbora ematen du bere bizi osoan zehar lagundu duten dantza pertsonaien zurezko eskulturak egiten.

#### Galtzerdi Berdeak

Egilea : Oskar Alegria

Argelès-Gazosten sorturik, Filipe Oyhamburu Biarritzen bizi da. Kortsarioen arresemeso, Zorba greziarraren miresle amorratu, anarkista komentzitu, koreografo, musikari eta irratilari izateaz gain, Oldarra, Olaeta eta Etorki dantza talde eta abesbatzen antolatzaile zein zuzendaria izan da, haiekin munduko itzulia eginez. Euskal kantu eta dantzak lau kontinenteetara eraman ditu, emanaldiak 31 herrialde eta 28 hiriburutan eskainiz. 94 urtetan, segitzen du ia egun guziz igeri egiten eta euskarazko klaseak ematen etxera etortzen zaizkion ikasleei. Galtzerdi berdeak omenalditxo bat da, begi-keinu adiskidetsu bat haren oroimen bizi neurrigabeari.



«Soka» sorkuntza - Kukai konpainia - 2010  
(Argazkia : Gorka Bravo - Dantza Hirian festibala)

#### OSKAR ALEGRIA (IRUÑEA, 1973)

Oskar Alegria dokumental irakaslea da Nafarroako Unibertsitateko Ikus-Entzunezko Master-aren baitan. 2012an, *Emak Bakia* izeneko lehen luze-metraia egin zuen. Film horrekin, 30 festibal baino gehiagotan parte hartu du munduan zehar eta lau sari ospetsu lortu ditu jada. Iruñeako PuntodeVista dokumentalaren nazioarteko festibalaren zuzendari artistikoa da.

## Arintasunaz

Egilea: Oskar Alegria

Euskal dantzaren hainbat zati eta urrats airean iragaten dira: zazpi jauzi, muriskak, antrexatak, frexat. Aldaera gehien daukan euskarazko hitza tximeleta da: pinpilinpauxa, jinkoarenailoa, inguma, berrionzalea. Baliteke bi erreferentzia hauek lotuak izatea. Puntu komun bat bederen badute: arintasuna. Gure jauzirik zaharrenetan, gure hizkuntzan bezala, airea okupatu, lurra istant baterako utzi eta... gora altxatzeko nahia aurki daiteke. Arintasunaz omenaldi bat da dantza horiei bezainbat, euskarari ere.

## Margo dantza

Egilea : Oskar Alegria

Jon Maya dantzariaren laguntzari esker, zazpi margo oinak erabiliz tindatu dira. Arin arin dantzaren arrastoa, jotaren itxura geometrikoak, aurrekuaren urrats pausatuak, ezpata-dantzaren ondorioak, mutil dantzaren aztarna zirkularra... Itxura horiek guztiak aldatu eta, azken finean, margolan handi batean txertatzen dira. Zer gelditzen da lurrian dantzariak ferekatzen duenean eta honen gainetik ibiltzen denean, pintzel baten pare? Zazpi obra horiek zazpi eranzun dira, bai eta zazpi galde berri ere.

## Jalgi

Egilea : Aldudarrak Bideo

Sorkuntza da komunikazio esperimentalak. Bakarrik ez girela errateko. Bakarrik girela errateko. Sorkuntza da hizkuntza, literatura, antzerkia, kantua ... dantza. Dantza da gorputzaren bidezko adierazpen mota. Dantza mintzo da bizi eta heriotzaz, grabitateaz. Munduan izaitzeko nahi kementsua adierazten du. Dantzak dio: «nintzen, naiz, izango naiz». Dantza da memoria, kontzientzia, nahikeria. Dantza da arbasoak oroitzeko, espazioa okupatzeko, etorkizunean sinesteko. Dantza da heriotzaren (indibiduala edo kolektiboa) beldurrari aurre egiteko era. Deusezteari erresistentzia.

Gogoeta hauen inguruko proposamena da «Jalgi» bideoa.

27

## ARGAZKIAK

### Bizkaiko dantzen hiru mugimendu adierazgarri

Egilea : Getxophoto - Begihandi kolektiboa

Getxoko «Getxophoto» nazioarteko argazki festibalaren antolatzailea den Begihandi kolektiboaren ekimenez, SOKA erakusketan formatu handiko hiru anaglifo aurkeztuak dira eskusibotasunez. 3D betaurrekoekin begiratu behar diren irudi hauek, Bizkaiko dantzen mugimendu koreografiko batzuei erakusten dizkigute.

San Martin ezpata dantza  
Maritzuli konpainia 2015  
(Argazkia: Gabrielle Duplantier)

### «ELEKETA» BILKETA PROGRAMAREN LEKUKOTASUNAK

Euskal kultur erakundeak 2007an abiatu «*Eleketa*» programaren xedea ipar Euskal Herriko euskarazko ahozko memoria (bizipen eta jakitate kontaketa, kantuek eta leiendak, etab.) biltzea, artxibatzea eta hedatzea da. Euskal dantzaren inguruan bilduak izan diren 64 lekukotasunak baloratuak dira SOKAren kariatara. Zati batzuei erakusketaren modulo desberdinetan aurkeztuak dira. Beste batzuei laster izanen dira soka.eus webgunean ikusgai.



# Sorkuntza eta tradizioa: Juan Antonio Urbeltzen *Argia*

Sorkuntza tradizioa biziberritzeko ohiko tresna da, ekoizten duen gizartearen aldaketetara egokitzen ez den tradizioa fosildu eta eten egiten baita.

Maiz antagonikoki ulertu izan diren bi kontzeptu horiek batera ulertu eta jorratzen dituen dantza tradizionalaren joera bat indar handiz abiatu eta zabaldu zen euskal dantzaren alorrean 1965etik aurrera. Dantza tradizionalen erroak ikertu eta atonduta eta berrituta aurkezten hasi zen *Argia* dantzari taldea.

Eredu berriak arrakasta handia izan zuen eta lan egiteko molde hori imitatu zuten euskal dantzaren alorreko talde gehienek. Juan Antonio Urbeltzen zuzendaritza teoriko eta koreografikoaren ekarpen hori azpimarratua da SOKA-ko gune berezi batean.

28

Horretarako hainbat ikusgarriren zatiak erakutsiak dira telebista handi batean.



Juan Antonio Urbeltz  
(Argazkia : Maite Deliart - EKE)

## Dantza-flokak

Erakusketaren bukaeran, bideo-sorkuntza labor baten bitartez, bisitariak euskal dantzen maila tekniko handia erakusten duten lurralde ezberdinetako dantzarien koreografiak preziatzen ahalko ditu. Kalitatezko praktika artistiko bat, urteetan zehar landua izan dena.

### FILMA

#### «Dantza-flokak»

Egilea : Bideografik  
Musika : Mikel Perez

Mikel Perez musikariak sortu soinu banda baten gainean, bost minututan, «Dantza-flokak» bideo-klipak dantza ezberdinak nahasten ditu (mutxikoak, soinu zaharra, Arratiako Jota, Xiberoko puntuak), euskal urratsen berezko kalitatea eta iraupena erakutsiz.

### EUSKAL DANTZAREN

#### MEMORIA IPARRALDEAN

Ipar Euskal Herriari begira, XX. mendeko euskal dantzaren memoria ilustratzen dituzten zenbait bideo-dokumentu erakutsiak dira ere erakusketaren bukaerako gune batean, telebista handi baten bitartez. Erakusketan barreiatuak diren altxor batzuen erakusleioa bilakatzen da bisitariak biziki gogoko duten xoko hori. Dantza memoriaren alorrean aurkikuntza berrien egiteko gonbidapena luzatzen digu.

# 5 | ERAKUSKETAREN BISITA ETA BITARTEKARITZA TRANSMEDIA

## ERAKUSKETAREN BISITA ETA BITARTEKARITZA

Erakusketa hartuko duten tokien arabera, eskolak errezebitzeko aukera izanen da. Ondoko hilabeteetan, 2016. urtean zehar, 8-15 urte arte artekoiei zuzendu bisita gida interaktibo bat gauzatuko da, tableta eta smartphonetan kontsultagarri izanen dena. Helduei dagokienez, hitzordua hartuz, erakusketaren bisita gidatua egiten ahalko da animatzaile batekin, beti ere aurkezpen tokien arabera finkatuak izanen diren modalitateen arabera.

## TRANSMEDIA DEKLINAZIOAK

Proiektu honen inguruan urratsez urrats antolatu nahi dugun transmedia bitartekaritza estrategiaren arabera, bisitariak ez du bakarrik erakusketaren «esperientzia fisiko» ukanen. Deskubritze hori lagundu behar dugu, bai bisita aitzin, bai bisitaren ondotik. Pentsa daiteke erakusketa sekula bisitatuko ez dutenek ere euskal dantzarekin «harreman» bat izaten ahalko dutela, gutxienez hedabide (sare sozialak, webgunea, prentsa) edo animazio periferiko baten bidez (hitzaldia, ekitaldia, ikuskizuna, lehiaketa...).

29

Helburua da biziki publiko ezberdinen interesa piztea. Parte hartze hori, modu ezberdinez gauzatzen ahal da: Facebook orri bat atsegin izatea, sorkuntza lehiaketa batean parte hartzea, familiako artxikoak eskaintzea...

Hori dela eta, transmedia dispositiboak erakusketan gutti edo aski aipatzen diren gaien deskubritzeko halako sarbideak izanen dira. Beren izaera eta ezaugarrien arabera, publiko mota ezberdinei zuzenduak izanen dira.

Transmedia dispositiboak nagusiki 2016-2017 epealdian obratu eta animatuko dira. Horietarik batzu luzatuak edo berpiztuak izaten ahalko dira, publikoen harreraren arabera (mintzaldi tematikoak, lehiaketak...). Beste batzu iraunkorrak izanen dira (hala nola Euskal kultur erakundearen webgunean kontsultagarri izanen diren erakusketaren gai jakin batzuei buruzko informazio osagarriak).

Zinta-dantza, Bardoze, 2015  
(Argazkia : Johan Morin)





## DEKLINABIDE ADIBIDE BATZU

### «Euskal dantza» liburuxkaren argitalpen berezia

Etxepare Institutuarekilako partaidetzaren kariatara, Oier Araolaza-k euskal dantzaz idatzi lau hizkuntzatako (euskaraz, frantsesez, gaztelaniaz eta ingelesez) dibulgazio liburuxka erosteko parada ukanen dute bisitariak. Sintesia lan honi esker nahi duenak erakusketan aipatu hainbat gai sakondu ditzake.

### Inguruko animazioak

Erakusketaren aurkezpenaren kariatara, toki bakoitzaren berezitasunari egokitu animazio egitarau bat osa daiteke, osagarriak baina ere bereziak izan daitezkeen euskal dantzari buruzko ikuspegi artistiko edo zientifiko batzuen ekarpenarekin. Testuinguruaren arabera, mintzaldiak, tailerrak, performantzak edota ikusgarriak izan daitezke. Xehetasun gehiagorentzat: [www.soka.eus](http://www.soka.eus)



Dantza klasea - Bardoze - 2015  
(Argazkia : Johan Morin)

30

### Euskal dantza eskolei

#### buruzko web-dokumentala

EKEk 2016an ekoiztu duen «Lehen urratsa» web-dokumentalak soinu bidaia bat proposatzen du ipar Euskal Herriko bost dantza eskolatan (Hendaia, Bardoze, Itsasu, Baigorri, Barkoxe). Johan Morin argazkilariaren argazkiek haurrekin, gazteekin, dantza erakasleekin eta burasoeekin euskaraz edo frantsesez egin elkarrizketa zatiak apaintzen dituzte. Lan horren bidez, dantzari gazteen motibazioak, pertzepzioak eta bizipenak hobeki ezagutzen ahal dira. Gehiago jakin: [www.lehenurratsa.soka.eus](http://www.lehenurratsa.soka.eus)

### «SOKA APP»

2016an Bilboko Azkue Fundazioarekin partaidetzan garatu dugun SOKA erakusketaren inguruko aplikazio ludikoa 8-15 urte arteko haurrentzat eta gaztetxoentzat garatua izan da. Google Play eta Apple Store-n eskuragarri dohainik!

### Ustiapen pedagogikoa

SOKA erakusketaren inguruko dokumentu pedagogiko bat elkarrekin pentsatu eta sortu dute Iparraldeko Dantzarien Biltzarrak (IDB), Atelier Canopé 64 sareak, Euskal kultur erakundeak (EKE) eta IKAS pedagogia zerbitzuak. Erakasleei zuzendutako extranet gunere berezi batek osatzen du.

### ERAKUSKETAREN WEBGUNEA :

#### [WWW.SOKA.EUS](http://WWW.SOKA.EUS)

SOKAren webgune ofizialean ([soka.eus](http://soka.eus)), erakusketaren tokiak, egunak eta ornak atxemanen dituzu, bai eta bisitaren modalitateak, animazio programak, promozio argazkiak. Denborarekin, adituen testuak, dokumentuak, biografiak eta erakusketan aipatu gaietako buruzko loturak sareratu dira. Halaber, Eleketa programaren kariatara euskal dantzaren gaiaren inguruan bildu lekukotasunak (64 pertsona elkarrizketatuak) baloratuak izanen dira bideo zati moduan.



## 6 | Publikoak dioena

### Bisitariak erakusketa ikusi ondoan utzitako ohar batzu...

- » «Interesgarria, aberatsa, dokumentatua»
- » «Zer lana! Milesker mementu aberats, hunkigarri eta pozgarri horrentzat. Dantzatzeko gogoia edo sekulan gelditzeko gogoia emaiten du»
- » «Erakusketa ikusgarri eta zoragarria. Lan benetan eder-ederra»
- » «Dantzaria izan naiz eta asko gustatu zait erakusketa, oso ederra da»
- » «Miresgarria, zer aberastasuna»
- » «Erakusketa biziki aberatsa eta interesgarria. Milesker bildu dituzuen lekukotasun guzi horiengatik»
- » «Hunkigarria»
- » «Loriatu naiz!»
- » «Irudi ederrak, lekuko hunkigarriak, haur denborako oroitzapenak...»
- » «Arrunt hunkitua, erakusketa ederra!»
- » «Dantza erakusten duzue ederki, sakonki. Zaharberritua eta unibertsa!»
- » «Hiru ordutan zehar erdiaz gozatzeko ere aukerarik ez degu izan. Sintesi lan zoragarria izateaz gain, interesa duen nornahik noiznahi gozatzeko aukera baliatzea zoragarria litzatzeke. Bihotzez eskerrak!»
- » «Hunkigarria benetan! Erakusketa hau ikusi ondoren nor ez da dantzan hasiko?»
- » «Oso espresagarria. Bikaina»
- » «Lan izugarria!»
- » «Oso adierazgarria, artxibo hunkigarriak, eta ikuspegi zabala»



## 7 | Donostia 2016 Europako kultur hiriburuaren gomendiozko gutuna



Dagokionari:

Gutun honen bidez, aditzera eman nahi dut Donostia 2016ko Europako Kultur Hiriburu den heinean, bere programa kulturalerako *Elkarrizketak* atalaren baitan hartu duela "SOKA" erakusketa (Euskal kultur Erakundeak ekoizturik, Gipuzkoako Diputazioaren partaidetzarekin).

"SOKA" erakusketa benetan ederra da eta parada handia ematen du atzoko eta gaurko euskal dantzaren hobeki ezagutzeko, gainera teknologia berriak erabiliz eszenografiarentzat. Nolaz erakusketa lau hizkuntzatan dagoen (euskaraz, frantsesez, espainolez eta ingelesez), publiko zabal batek goza dezake. Azkenik, erakusketari datxikola eginak izan diren ekitaldiek arrakasta ukan dute, nola hitzaldiak, hala dantza ikuskizunak eta dantza taillerrak.

Guretzat, garrantzitsua izan da ekitaldi hauek Donostia 2016ko programan sartzea, eta partaide izaitzea.

Opatuz erakusketa hau munduan gaindi ibiliko dela,

Har izazue, gure agurrik beroenak.

Donostia 2016ren zuzendari orokorra

Pablo BERÁSTEGUI



DSS2016.EU

Easo kalea 43  
Donostia / San Sebastián  
20006

+34 943 483 344

[www.dss2016.eu](http://www.dss2016.eu)  
[info@dss2016.eu](mailto:info@dss2016.eu)

# 8 | Harremanak

## PRENTSA HARREMANA | IBILTZARITZA & HEDAPENA

Pantxoa ETCHEGOIN

Euskal kultur erakundea  
etchelein@eke.eus  
00 (33) 5 59 93 25 25

## BISITENDAKO HARREMANA & ANIMAZIOAK

Maia ETCHANDY

Euskal kultur erakundea  
maia.etchandy@eke.eus  
00 (33) 5 59 93 25 25

34

---

## KONTAKTU TEKNIKOA | EZARPENA

Jakes LARRE

Euskal kultur erakundea  
jakes.larre@eke.eus  
00 (33) 5 59 93 25 25